

**GATAZKA HIRUGARREN
SEKTORE SOZIALEKO
ERAKUNDEETAN**

Webinar-jardunaldia

**10etik 12ra arte
Abenduaren
15an**

 Hirugarren Sektorerako Euskarriak
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social

WEBINAR JARDUNALDIA: SUMENDIAREN GAINEAN BIZITZEN. GATAZKA HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEETAN: ARAKATU GABEKO NATURAREN INDARRA.

Sumendien garaian bizi gara. Naturak behin eta berriz harritzen gaitu duen indar guztiarekin. Potentzia horrek guztiak denbora luzez ezkutuan iraun dezake eta, hala ere, irteerarik topatzen ez duenean, ia irudikatu ere egin ezin dugun ahalmenarekin azaleratzen da. Suntsitzailea izan daitekeen indarra, baina normalean gure baitan askoz ere arinago bizi ohi dena. Gai da, eta gu gai egiten gaitu, geografia eta egitura bizigarri berriak sortzeko.

Hirugarren sektore sozialeko erakundeetan, gatazka ez zaigu arrotza, ezta gutxiago ere. Gatazka, zentzurik zabalenean, motor gisa baliatzen duten erakundeak gara. Forma eta dimentsio askotariko gatazkak. Gatazka zalantzan jartze gisa, interesen desadostasun gisa, ebidentzian jartze gisa, eztabaida egite edo uko egite gisa, salaketa edo presio-ekintzak gauzatze gisa. Salaketa bakoitzean sortzen den gatazka soziala, kontraesan sozial ugariaren bistaratze-ariketa gisa, bazterketa, arreta gabezia, arriskua eta abar sortzen duten egoeren aurrean hatza zaurian sartuz.

Funtsean, eraldaketa eta eraikuntza sozialeko proposamen eta ekintza positiboak sustatzen ditugun erakundeak gara. Eta, batzuetan, aldaketa eta eraldaketa soziala ahalbidetzeko tresna gisa gatazka sortzen duten ekintza eta proposamenak sustatzen ditugu. Izan ere, batzuetan, gatazkatik abiatuta izan gaitezke guztiontzat bizimodu berri eta hobeak sortzeko eta sustatzeko gai.

Jardunaldi honen helburu gure erakundeetako gatazkari buruzko gogoeta sortzea da eta, horren bidez, haien ikuspegi eta esperientziari esker, esparru honen inguruan sakontzen lagun diezaguketen pertsonekin elkarrizketa sortzea ahalbidetuko ligukeen testuingurua finkatzea.

Eta hori guztia bi elkarrizketa-unetatik abiatuta egingo dugu:

1. Gatazka definituta (10:10-10:55)

- Lehenengo eta behin, gatazkara gerturatzeko saiatuko gara EDE Fundazioko gure lankidea den **Alex Carrascosak** prestatutako definiziotik abiatuta. Hori guztia landuko dugu **Gizagune Fundazioko M. Eugenia Ramos Pérezekin** batera, hark erakundearen esparruan gatazkak kudeatzearekin eta bitartekaritzarekin lotuta gatazkaren inguruan duen ikuspegia erakutsiko baitigu. Lehen elkarrizketa HSSko gatazkaren inguruan ondoren egin beharreko elkarrizketa ulertzeko abiapuntua eta babes-puntua izango da.

2. Gatazka HSSko erakundeetan: zaintza-proposamenak eta aldaketarako indarrak aprobetxatzeko helburua. (11:00-11:45)

- Bigarrenik, sektorean topatzen ari garen gatazken tipologiaen inguruko galderak egin nahi dizkiogu geure buruari. Zer puntutaraino uler dezakegu gatazka horietako batzuek, ikuspegi orokorretik, modu arin eta eragingarriagoan aurre egiten lagun diezaguketela? Zer era ezberdinetan adierazten dira gatazkak hirugarren sektoreko erakundeetan? Ba al dago gatazka ezberdinen tipologiarik hirugarren sektore sozialeko erakundeetan?
- Amaitzeko, erakundeetako gatazkak konpontzeko zer egiten ari garen galdetuko diogu geure buruari, eta gatazka-mundura gerturatzeko proposamen batzuk bilatuko ditugu horren beharrezkoa den eraldaketa-indar horretan sakondu ahal izateko. Zer egin dezakegu gure erakundeetan gatazken aldaketa-potentziala aprobetxatu ahal izateko?
- Horretarako, gainera, hiruko elkarrizketak egingo ditugu honako hauekin: **Gizagune Fundazioko M. Eugenia Ramos Pérez, Plena Inclusión erakundeoko Pedro del Rio eta Cala kolektiboko Gloria Sosa Sanchez-Cortes.**